

BERRIGARA

125. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara


1993, azaroak 5

AKORDIORIK
EZ
UDALAREN
ETA
AZOKAKO
SALTZAILEEN
ARTEAN

EUSKARAREN
EGOERA
AZTERGAI
MERKATAL
ARLOAN

KIROLAK

BERGARARRAK
ONDO
MUNDUKO
MARATOI
KOPAN



THE

LOOK




Burberrys
OF LONDON

egizabal



CARTUJANO



Dr MARTENS

PEYTON

PANAMA JACK

TEMPRA STADIO



ERAKUSKETA:

Ibargarai 39
BERGARA

TAILERRAK:

Antigua Auzoa
ANTZUOLA

Autoberezi **FIAT**
ZERBITZU OFIZIALA

— ARTE —
AZCOAGA

Altzari, Erregalu, Apainketa eta Proiektuak

**Gogoko egingo
zaizun proiektua.**

Orain, zure etxerako aspaldidanik amesten duzun proiektua egiterakoan, hurrengo hamabi hilabeteetako interesik gabeko finantziazioa lortuko duzu. Eta gainera inongo Banku edo Kutxatik pasatu gabe. Interesgarria ezta? Etor zaitetz bisitatzera.

Gral. Alava, 32. TEL: 23 03 69 - VITORIA-GASTEIZ

Argitaratzailea:

Jardun Elkarte
 Errotalde Jauregia, 20.570
 Bergara. ☎ 76 08 19

Berrigara

Tfnoa. eta Faxa: 76 03 97

Babeslea: Bergarako Udala.

Erredakzioa

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil
 eta Mikel Elkorobereizbar.

Maketazioa:

Eneko Azkarate eta Eduardo
 Mendibil.

Publizitatea eta harpidetzak:

Alex Azkarate eta Edurne
 Arenaza. ☎ 76 03 97

Erredakzio-kontseilua:

Iñaki Eraña, Gorka Elorza eta
 Alex Labaien.

Kolaboratzaileak:

Jose Angel Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel
 Angel Elkorobereizbar, J. M.
 Elxepuru, J. Oregi, Maripi
 Laskurain, N. Alzelai, Ainhoa
 Lete, Jon A. Bengoa, M.
 Lizarralde, Monika Belastegi,
 Aitziber Aretxaga, Ainhoa Bikuña,
 Asier Madinabeitia, Josune Iñarra
 eta A. M. Goenaga.

Argazki laborategia:

Pol-Pol Argazki Taldea eta Kifru.

Komikia eta marrazkiak: Josu
 Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati.)

Banaketa: Txantxangorri Taldea.

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 3.300 ale.

Lege gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain har-
 tzen aldizkarian adierazitako esa-
 nen eta eritzien erantzunkizunik.

PROTAGONISTAK



Domu Santu eguna izan dugu aste honetako protagonista. Batzuentzat jai-egun arrunta izan da. Beste askok, berriz, hildakoak gogoratu zituzten egun horretan eta, hala, bergarar asko hurbildu ziren astelehenean hilobia lorez apaintzera. Gainera, eguraldiak ere lagundu zuen, eguzkia izan baitzen egun osoan zehar. Eta bitxikeria bat ere bai: loreak erakarrira edo, erle piloa hurbildu zen kanposantura eta nahiko lan izan zuen enterradoreak erleok uxatzen.

Astelehenean jende ugari hurbildu zen kanposantura

ITURRI ONETIK

Bergarako abesbatzak Anoetan

Bergarako Udal Musika Banda, Musika Eskolako Tipleen abesbatza, Orfeoi Gaztea, Bergarako Orfeoia eta Aritzeta abesbatzak Gipuzkoako Futbol Federazioaren ereserkiaren aurkezpena egingo dute, Gabonetan, Anoetako Estadioan. Federazioaren 75. urteurrena dela eta, Euskadiko futbol selekzioaren partidu atarian (kontrarioa zehazteke dago), Alfredo Glez. Chirlaque (musika) eta Valen Moñuxek (letra) landu duten himnoa aurkeztuko da.

ESAN DUTE

"Europak, munduko inportatzaile handiena denez, badu ahalmena (hartuko ote du ardura?) munduko komertzio egokiago bat bideratzeko, bidezko prezioak ordainduz, betiko nekazaritza eta nekazal lanpostuak babestu, lur-ur-basoak era orekaturan landu erazi eta munduko lurralde eta baserritar guztiek zer-jana izan eta aberats bakar batzuren alde zorokatuak ez izateko".


MAITE ARISTEGI
 EHNEko kidea
 EGUNKARIA

"Euskara elkarteek sortu duten dinamika berriak iraun dezan behar-beharrezkoa da barne antolaketa sendo bat izatea".

JOSE ANJEL MIKEO
 JARDUN eta
 DEBAGUNEko
 lehendakaria
 JAZTEN ALDIZKARIA



Aldizkari honek
 Gipuzkoako Foru Aldundiaren
 laguntza jaso du



Aldizkari honek
 Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
 Turismo sailaren laguntza jaso du

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01

ZUBIETA

elektragintza

- ✓ Motoren bobinaketa
- ✓ Era guztietako instalakuntzak

Kruz Gallastegi, 2 behea
 Tfnoa: 76 23 48

ONENA

TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA



MAXIMO RIESGO

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30.



HOT SHOTS 2

Igandea: 11.30.



INTRUSO

Osteguna: 19.30.

Zinea

▼▼ **Sylvester Stallone** katu-oinak jantzi eta mendira joan zaigu. **Reny Harlynen** filmean paisaia liluragarriak eta abentura nahasten dira. Gaizkileak ere ez dira faltako eta **Stallonek** bere indarra azaldu beharko du berriz.

▼▼ Lehen zatiaren arrakasta aprobetxatu nahirik, *Aterrizo como puedes* filmearen egileek aktore sorta (**Lloyd Bridges, Charlie Sheen** eta **Valeria Golino**) ederra bildu dute bigarren honetan ere.

▼▼ **Vicente Arandaren** (*Amantes*) azken filma. Bere ohizko aktoreei (**Victoria Abril** eta **Imanol Arias**) **Antonio Valero** gehitu zaie oraingoan. Emakume berarekin maiteminduta, hirukote honetan gatazka piztuko da.

Deiak

▼ **Margo erakusketa.** Jose Antonio Laskurain eta Dani Laskurainen lanak Kultur Etxean.

▼ **Jubilatuaren irteera** Arabar Errioxara. Azaroaren 12an. Prezioa: 3.100 pta (bazkaria barne).

▼ **Abdon Juaristiren** ikasleen margo erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **Pello Alberdi** margolari elgetarraren erakusketa Bilboko Berta Belaza galerian (Arriquirar Plaza, 5) azaroaren 30era arte.

▼ **Maskarada** taldearen "Logalea zeukan ekilibrista" (B. Atxaga) antzeslana larunbatean 22.30etan Arrasateko Amaia antzokian. AEDren X. urteurrenaren barruan.

Ogia

▼ **Igandea 7:** Konde.

GOARDIAKO FARMAZIAK

- ▼ **Larunbata 6:** Guallar.
- ▼ **Igandea 7:** Guallar.
- ▼ **Astelehena 8:** Estella.
- ▼ **Asteartea 9:** Mozos.
- ▼ **Asteazkena 10:** Camacho.
- ▼ **Osteguna 11:** Puy.
- ▼ **Ostirala 12:** Guallar.



ETXEPARE-BILINTX

LIBURUDENDA

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

Liburuak eta diskoak



Gontzal
(bateria eta
ahotsak), Carlos
(baxua eta
ahotsak), Topo
(kitarra eta
ahotsak) eta
Txabi (kitarra
eta ahotsak):
Ama Say.

▼▼ Ama Say, Zurt eta Su Santidad taldeen kontzertua iragarri du Bergarako Gaztetxeak ostiral gauerako. Lokala uztearen aurka martxan jarritako programazioaren barne, euskal musikaren munduan izen eta ospe handia lortzen ari diren 3 talde datozkigu oraingoan. Aipamen berezia merezi du Ama say taldeak. Bizkaitarrak Negu Gorriak-ekin batera Europatik zehar ibili berriak dira. Euskal musikak azken boladan eman duen talde originaletakoak, ingelesa eta euskara nahasten ditu bere abestietan. Uda aurretik kaleratu zuten euren lehen diskoa, "Ikusi ditut umeak kalean ametsak akatzen" izenekoa. Kontzertua gaueko 10.30etan hasiko da. Gogoratu bestalde, astelehenean, azaroak 8, lokala uzteko epea amaitzen zaiela Gaztetxekoei.

KIROL KARTELDEGIA

FUTBOLA

BERGARA-MUNDARRO

Preferente maila
Igandea, 15.45. Agorrosin.

ESKOLA KIROLA

Futbol-7 txapelketaren hasiera
larunbat goizean Ipintzan.

ESKUBALOIA

BERGARA-UROLA

Jubenil mailako mutilak
Larunbata, 16.30. Kiroldegia.

BERGARA-TOLOSA

Kadete mailako mutilak.
Larunbata, 18.00. Kiroldegia.

PELOTA

BERGARA-TOLOSA

Jubeniak

BERGARA-BILLABONA

Seniorrak

Kluben arteko txapelketa.
Ostiralean gaueko 10etan,
Bergarako Udal Pelotalekuan.

Profesionalak larunbatean frontoian
16.30etatik aurrera.

YAZKI

UME GAZTE

Neska eta Mutil

Irizar 3 Ibargarai 8
Tfnoa: 76 16 54 Tfnoa: 76 54 73

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka 4, behea ☎ 76 18 93

- Ateak, zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioa
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35
BERGARA



DEBA

GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Aranzadi, 2 behea. ☎ 76 21 80
76 06 37

Gizon Emakume

Barrenkale 35 BERGARA

Irrati libre bat

Kaixo, zuengana zuzentzen gara Txapa Irratiaren berri emateko asmoz.

Jakingo duzuenez Txapa Irratiak ere emisioak eten egin ditu, eta agian jadanik ahaztuta zeneukaten Txapa Irratia. Baina Txapa beharrezkoa zuen eztabaida batean murgildurik aurkitzen da momentu honetan.

Laister irriatiak bi urte egingo ditu Bergarako uhinetan, baina bi urte hauetan izan dituen aurrerapausu eskasak eta hutsune ugariak ikusirik emisioa moztu eta barne reorganizazio batean zentratu gara, izan ere Txapa Irratiaren funtzionamendurako estatutuak 1985-86 urtean egin ziren eta azken bi urte hauetan frogan ipini ondoren funtzionamendu egokiago baten beharra ikusi dugu.

Ez dugu kolektiborik gonbidatu nahi ez eta inor konprometitu eztabaida haue-tara etortzeko, baina pertsonalki irriatiaren etorkizunaz arduratzen zareten guztion partehartzea ezinbestekoa da, hots, sistematik edo instituzioetatik at bere burua autogestionatu eta antolatzen garenon partehartzea, izan ere Txapa sistemak eskaintzen duen komunikabide konbentzionalen aurrean komunikabide alternatibo bat izatea du helburu, eta horretarako beharrezkoa da gizarte edo sistema honek agertzen duen errepresioari aurre egiten zaudeten emakume, gazte, ekologista, antimilitarista, "preso", ikasle e.a. guztiok elkartzea eta benetazko irradi libre bat egitea.

Beraz, proposaturiko eztabaidan parte hartzeko interesaturik zaudetenok jar

zaitzte gurekin kontaktoan eta txapa gehiagorik gabe agurtzen zaituztegu.

Txapa Irratia

Hemen torturatu egiten da

Gai hau berria ez bada ere garrantzia hartu du Euskal Herrian irailean gertaturiko hainbat gauzen ondoren.

Ziur gaude Euskal Herrian bizi eta begiak zabalik dituen edonork dakiela estatu espainoleko komisaria, koartelilloetan eta espe-txeetan torturatu egiten dela. Ia inork ez duela sinistu Gurutze lantzik besterik gabe izan zuela bihotzeko atakea eta Xabi Kalparsoro ez zela nolana Indautxuko komi-sariako leihotik erori.

Euskaldunok ondotox ezagutzen dugu tortura. Baina torturaren praktika hau ez da ezerezetik sortzen eta ez da atxilotetak praktikatzen dituzten indar polizialeko kide-ak krudelak eta bortitzak direlako soilik gertatzen.

Estatu espainolean badago tortura po-sibilitatzen eta babesten duen legedia. Es-tatu espainolean badago "Ley Antiterrorista" delakoa. Lege honen arabera:

- Detenituak 3 edo 5 egun egon beharko du inkomunikatuta.
 - Ezin izango du konfidantzako abokatu exijitu.
 - Ezin du telefono deirik egin non dagoen esateko.
 - Aitorpena egin aurretik ezingo du abo-katuarekin bakarkako elkarrizketarik egin.
- Ikus daitekeenez honelako legeekin

tortura eta torturazailleak zeharo babestua gelditzen dira eta beraiek bakarrik daukate komisarietan gerta daitekenaren kontrola.

Lege honetaz gain, Audientzia Na-zionala tribunal berezi bat da eta tortura-ren babeslea. Alde batetik detenituak komi-saldegian egindako deklarazioa har-tzen du oinarritzat; bestalde, deklarazio hau zein baldintzatan egin den kontutan izan gabe eta azkenik, detenituak torturak salatzen ditunean ez du kasorik egiten.

Politiko batzuk ere badute bere erant-zunkizuna, torturaren inguruan inplika-turik dauden poliziak baztertu egin beha-rrean, kondekoratu eta karguz igotzen dituzte. Beraz, garbi gelditzen da tortu-ratazailleek babes guztia dutela.

Amnistiaren Aldeko Batzordeetatik aspaldidanik dihardugu torturaren aur-kako lanean, baina oraingo honetan herri osoaren laguntza behar duen ekimen bati ekin diogu: tortura posibilitatzen duen legedia kentzea helburu duen ekimena. Gure proposamena Gasteizko legebiltza-rrean eta Nafarroako parlamentuan tra-tatzeko 50.000 firma biltzeari ekin diogu. Ziur gaude Bergarako herria ere tortura-ren aurka dagoen herria dela eta berga-rarrok aktiboki hartuko dugula parte tortu-ra ebitatzea helburu duen ekimen hone-tan.

Besterik gabe eta lan honetan elkar ikusiko dugun itxaropenarekin.

Bergarako Amnistiaren Aldeko Komitea

Tiira ba!



Josu Okina



Mantenimendu gimnasia

Mantenimendu gimnasiako taldea osatzeko pertsonak behar dira. Klaseak astelehen, asteazken eta ostiralez izango dira Kiroldegian goizeko 10etatik 11etara. Interesatuak 761929 telefono zenbakira deitu dezakete.

Kutxako kotxea

Kutxan ostegunean eginiko zozketaren arabera, 126.812 zenbakiaren jabeak Ibiza CL kotxea eskuratuko du. Zenbakia Simon Arrietako bulegoan banatu zen.

Dantza ikastaroa

Idolaz Antzuolako euskara taldeak trikitixa, arin-arin eta fandango ikastaroa iragarri du abendurako. Izen-ematea Antzuolako liburutegian edota Gaztetxean egin daiteke azaroaren 14a baino lehen.



Merkatu berria zabalik ikusteko itxoin egin beharko dugu oraindik.

Akordiorik ez Udalaren eta merkatuko saltzaileen artean

"Udala eta Azokako saltzaileak ez dira akordio batera iritsi oraindik". Hori adierazi dio BERRIGARARI alkatearekin negoziatuz ari den Alberto Arrate azokako saltzaileen abokatuak.

Joan zen ostegunean bilduta izan ziren Victoriano Gallastegi alkatea, Jabier Gabilondo Gobernazio zinegotzia eta Alberto Arrate abokatuak eta bilera horren ondoren

Udala eta Azokako saltzaileak akordio batera iritsi zirela publikatu zen periodikoetan. Baina Udalak 4 milioi pezeta eskatzen du postu bakoitzagatik eta azokakoak, berriz, ez daude 3 milioi baino gehiago ordaintzeko prest.

Horrez gain, azoka berrian hainbat egokitze lan egitea eskatzen dute saltzaileek. Baserritarren postuak sotanoan omen

daude eta besteen mailara igotzea eskatu diote Udalari. Bestalde, azoka bultzatzeko beste hainbat lan (azoka inguruan aparkalekuak egin edota merkaturako informazio bulego bat irekitzea esaterako) egiteko eskakizuna luzatu diote Udalari.

Gaur egitekoa zen Udaletxean ordezkaturik dauden alderdi politiko guztien eta Arrateren arteko bilera.

Mariaren Sierbei agurra

Larunbatean eguerdiko 12etan Santa Marinar egingo den mezan Mariaren Sierbei agurra egingo zaie. Bergarako Kristau Elkarteak azken 96 urtetan gure artean izan diren monjak omendu nahi ditu. Monjek lortu duten estimazioaren lekuko, joan den uztailan beren martxaren aurkako 4.345 firma jaso ziren gure herrian baina Sierben Zuzendari Nagusiak *"pena haundiz, baina erabaki hori bartu beharrean zeudela"* adierazi zuen. Monjak pixkanaka alde egiten ari dira eta igandean, adibidez, beste bi joango dira Bergararik eta beste bi azaroaren erdialdera arte izango dira hemen.



1944 eta 1957an jaiotakoen eguna


1944 eta 1957an jaiotako bergararrek azaroaren 27an ospatuko dute beren anaiarteko eguna. Lehendabizikoak (1965eko kintoak) Errekin bilduko dira afaltzeko eta bertara joan nahi dutenek Sanchez ilepaindegia (762370) edota Zer Nai (761808) tabernan eman dezakete izena. 1957an jaiotakoek, berriz, Antxonin egingo dute afaria eta aurretik Intxorta tabernan (762276) eman beharko dute izena.

Mendi irteera

Gorla Alpino eta Pol-Pol Mendizale Taldeak Billabona-Berastegira egu guztirako mendi irteera iragarri dute azaroaren 14rako. Irteera goizeko 7etan izango da eta izena bulegoan bertan eman dezakezue.

Dani Santos irabazle

Dani Santos Pol-Pol Argazki Taldeko kideak Beasaingo argazki-rallya irabazi du, 20.000 pta. eta trofeoa eskuratuz.



Drogen arazoak dituen irtenbideak aztertuko dira.

Drogari buruzko jardunaldiak

Kultur Etxean azaroaren 9tik 18ra

Bergarako Udaleko Drogomenpekotasunen Prebentziorako Udal Zerbitzuak *Drogak al dira arazoa?* izenburuko jardunaldiak antolatu ditu azaroaren 9tik 18ra bitartean. Asteartean, esan bezala, jardunaldiei hasiera emango zaie *Denok daukagu zeresana* hitzaldiarekin Kultur Etxean 7etan. Asteazkenean, ordu eta toki berean, Eneko Landaburu sendagileak *Curarse una/o misma/o, sin los peligros de los medicamentos* gaiari buruz jardungo du. Ostegunean *Gaur egun Bergaran bizi izatea* izango dute az-

tergai Bergarako adin eta talde ezberdinetako hainbat pertsonek. Asteartean, azaroak 16, *El precio de la ambición* bideoa eskeiniko da Kultur Etxean 7etan eta asteazkenean Antonio Palomar Sumendiko partaideak *La penas nadan bien... no intestes ahogarlas, desahógalas* gaia aztertuko du. Ohiulari clown-antzerki taldeak parodia bat egingo du eta amaitzeko, Maialen Lujanbio eta Jose Mari Irazu bertsolarien saioa. Kukuma hankapalu taldearen emanaldiak ere izango dira jardunaldietan zehar.

NAHIKARI

TABERNA

MARGO

ERAKUSKETA

ABDON JUARISTIren
IKASLEAK



Masterreka 20 ☎ 76 57 71

Amets



• HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak.

- Zango erremolkeak.
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak.

Informazioa: ☎ 78 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK

Berezano auzoa OÑATI

ederTu

20 urte zure zerbitzura,
kalitatezko altzariak eskaintzen

Barrenkale, 23

☎ 76 29 65

BERGARA



Datu bilketa azaroaren 15ean hasi eta hamabost bat egunez egingo da.

Euskararen egoera komertzioetan

Siadecok gaurko egoeraren azterketa egingo du

Atzo iluntzean aurkeztekoa zen Kultur Etxean Udaleko Euskara Zerbitzuak komertzioetan euskararen egoera zein den jakiteko burutuko duen ikerketa. Euskara Zerbitzuak merkataritza munduan euskara bultzatzeko plangintza martxan jarri nahi du datorren urtean. Hori egin aurretik, SIADECO ikerketa sozonomikoen elkar-teari gaur egungo egoera aztertze-ko agindu dio.

Euskara Zerbitzua eta SIADECOko ordezkariak komertziantebatzurekin izan dira dagoeneko

datu bilketa azaldu eta beraien eritzia jakiteko asmoz. Esan bezala, azterketa amaitu ondoren, Udal Euskara Zerbitzuak zerbitzuak euskaratzeko kanpaina martxan jarriko du.

Azaroaren 15etik aurrera Eva Alberdi eta Amaia Agirrek egingo duten bilketaz gain, komertzianteei itzulpen zerbitzua eskeinitzeko die Euskara Zerbitzuak. Edozer gauza euskaratu nahi dutenek Euskara Zerbitzura (Irizar Jauregia) edota 765979 telefonora jo dezakete bulego orduetan.

Skiko merkatua

Azaroaren 22an Pol-Poleko aretoan bigarren eskuko skiko materiala saltzeko merkatu-txikia irekiko da. Materiala saldu nahi duenak Pol-Poleko bulegora jo dezake azaroaren 15etik 18ra.

Mus txapelketa

Larunbatean, 4retan, Eginoko IV. Mus Txapelketako kanporaketak jokatu dira Belengua, Oilagorra eta Arkupe tabernetan eta Angiozarren. Elusun igandean izango dira ordu berean. Izen emateak 3.000 pta. balio du.

AEK eguna

Igandean AEK eguna ospatuko da Arrigorriagan. Bergaratik 9.50etan autobusa aterako da Frontoitik. Txartelak (800 pta) Pol-Polen eta Arranon.

Pelota kiniela

Asmatzaile bakarra izan zen aurreko asteko BERRIGARA pelota kinielan. Berak eskuratuko ditu sariko 49.560 pezetak. Aste honetan Titin-Arretxe eta Unanue-Errastiren arteko partiduko emaitzak (erdikoa eta amaierakoa) asmatu beharko dira.

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia.
Bioter produktoak eta haziak.**

San Pedro 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

GOIERRI **Autogidarien eskola**

Fraiskozuri Enparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA



**ILEAPAINDEGI MISTOA
ESTILISTA.**

Artekale 29. Behua
Tfnoa: 76 29 70
BERGARA

Ez harritu hurrengo orrietan aurpegi berdinak ikusten badituzue, bikiak eta, kasu batean, hirukiak baitira. Halere, nahiz eta aurpegiz berdinak izan, bakoitzak bere nortasuna du. Bestela, irakurri beraiek kontatzen digutena eta mesedez, hemendik aurrera kalean ikusten badituzue ez konfunditu bata bestearekin.

Bikiak: enbor bereko adar berdinak

Bikiei buruzko erreportaia egiten hasi ginenean, fenomeno arrarotzat genuen. Baina batekin eta besteekin egon ondoren, konturatu gara gure herrian bikiak asko direla. Adin eta sexu guztietakoak, gainera.

Hilabete dutenetatik hasi eta 50 urterarteko bitarteko bikiak aurkitu ahal izan ditugu. Eta hirukiak ere harrapatu ditugu. Miren, Jaione eta Karmele Lopez de Aretxaga dira Bergarako hiruki bakarrak. 31 urte dituzte eta, umetako kontuak ekarri dizkigute gogora: *"txikitan zen txarrena - dio Jaionek- jendeak gure artean konparazioak egiten zituenean. Ni, birur-etatik, txikiena nintzen eta amorratzen jartzen nintzen jendeak esaten*

zuenean: 'Ai! Jaione beste biak baino txikiagoa da'. Kanpokoek atrakziotzat ikusten gintuzten".

Erropei dagokienez,

umetan hirurak berdin jazen zituzten eta aitortu digutenez, eurak noizbait bikirik badute, erropa ezberdinekin jantziko di-

tuzte.

Harremanei dagokie- nez, ez dute aparteko gorabeherarik izan: *"gure artean edozein senidek izan ditzaketen baserreak izan ditugu. Baina ondo konpondu izan gara. Hori bai, karakteral- detik oso ezberdinak gara".*

Ume bat erditzea sarritan gogorra izaten bada, are eta gogorragoa izan behar du hiru batera izateak. Horrela kontatu digute, euren amak izandako esperientzia: *"amak sekulako sustoa hartu zuen, ez baitzuen biru alaba izatea espero. Haurdun 7 hilabete zeramatzala ginekologoarengana joan zen eta bi alaba izango zituela esan zion. Baina gau berean bi-*



Karmele, Jaione eta Miren Lopez de Aretxaga, Bergaran diren hiruki bakarrak.

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea
Bidekurutzeta 29,
Tfnoa: 76 22 90 - 76 26 75

ETXALAR
KRUASANTEGIA
Gosariak eta
meriendak
Boni Laskurain, 4 ☎ 76 50 68

Iletxo Ileapaindegi mistoa
BEGOÑA ARZELUS
Fleming Doktorea, 7 ☎ 76 53 15
20570 BERGARA

rurok etorri ginen eta eskerrak amari gure izebek lagundu ziotela. Kontutan izan orduan haurroibalak telazkoak zirela eta erabili ostean garbitu beharra zegoela".

A ze futbolaria!

Karlos eta Julian osintuarrek anekdotak barra-barra dituzte: "12 urterekin auzoko futbol taldean jokatzen genuen eta nik-Julianek- eskuman "lateral" jokatzen nuen eta Karlosek eskumatik "extremo". Taldearekin Eibarrera partidu bat jokatzerara joan ginen eta bangoak barrituta gelditu ziren, ez zuten ulertzen zela mutil bat partidu osoan zehar goian eta behean egon zitekeen. Ondoren Eibarrek fitxatu ninduen eta Debara jokatzerara joan ginenean, orduan konturatu ziren ez nintzela bain ona eta berehala bota ninduten".

Soldadutzara joateko ordua heldu zitzaizenean ere, noski, biek batera egin zuten eta han ere, Karlosek dioenez, izan zuten kontatzeorik: "soldadutzan geundela Julianek neska bat ezagutu zuen eta neskarekin burrengo egunerako gelditu zen, baina bera neska batekin zebilen eta niri esan zidan bere orde z joateko. Ni joan nintzen baina azkenean ez bat eta ez besteak ez genuen ezer egin".

Euskeraz "biki" hitzaz izendatzen direnak bi sailetan banatzen ditu medikuntzak: benetako bikiak (erdarazko "gemelos") eta gezurrezko bikiak (erdaraz "mellizos")



SUSANA SAMPIETRO, mediku pediatria: "Benetako bikiak naturaren hutsa dira"

"Benetako bikiak, hiru-rukiak, ea.. obulo bakar bat, eta espermatozoide bakar bat elkartzen direnean sortzen dira. Gezurrezko bikiak bi obulo eta bi espermatozoide ezberdinetatik sortzen dira".

Benetako bikietan ume tokian, bi haurrak batera izaten dira. Gezurrezko bikietan, berriz, haur bakoitzak bere ume tokia du. Sampietrok esan digunez, historian zehar gezurrezko biki xelebreak ere izan dira. "Emakume beltz batek, batera, haur beltz eta txu-

ri bi erditu zituen. Hori gertatzea oso zaila da, baina emakumeak obulazio ziklo berean harreman sexualak pertsona batekin baino gehiagorekin izaten baditu, horrelako kasuak sor daitezke".

Benetako bikiak, medikuak esan digunez, genetikaren erru bat dira, gauza anormala alegia. Gezurrezko bikiak izateko, aldiz, herentziak eta beste faktore batzuk kontutan izan behar dira. "Klimak eragina du, Ipar hemisferioan Hegoaldean baino gehiago jaiozten dira. Horretaz apar-

te elikadurak ere badu bere garrantzia eta emakumearen adinak ere bai. Horrela, 37 urtera arte, emakumea zenbat eta zaharragoa izan, hainbat eta aukera gehiago izango ditu gezurrezko bikiak erditzeko".

Benetako bikiak, beraz, berdin berdinak izan beharko dute. Fisikoki (ilea, begiak ea...) berdin berdinak izan beharko dute, bi ur tanta bezain igualak, eta izaerari dagokionez, antzekoak izango dira.

INFERNUKUA TABERNA

Mahasterreka 23, Tfnoa: 76 18 49

GANBARA

Berezitasunak:
Pintxoak eta
kafea kremarekin

Irala z/g, Tfnoa: 76 55 75

T
B
E
R
N
A



Karlos eta Julian Zangitu, biki osintxuarrak.

Soldadutzakoaz gain, badauka Julianek beste anekdota barregarri bat emakume kontuetan: "gure lantokira tipo bat materiala ekartzera etor-tzen zen eta arratsalde batean, Amaia, orduan nire neskalaguna zena- rekin ikusi ninduen, eta egun berean, baina gauean tipoa Ariznoan afaltzen ari zen bitarte- an, nire anaia sartu zen bere neskaekin. Eta han hasi zen tipoa nire ana- iari ogia botatzen, kei- nuka, ea... Jode! berriz

etorri zen gure lantokira eta ez zidan sinesten bi- kiak ginela".

Gustuei dagokienez, aitortu digute nahiko an- tzeakoak dituztela, baina

bata Athletic zalea eta bestea Real zalea da.

"Oporretatik batak besteari opari berdinak"

Olatz eta Ane Agirre- o- lea 29 urteko bikiak dira. Berentzat bikiak izateak ez du aparteko berezita- sunik. Baina, dioskuenez, gaztetan jendeak konfun- ditu egiten zituzten. "Es- kolan 5. mailara arte ba- tera ibili ginen eta ba- tzutan irakaslea konfun- ditu egiten zen eta berdin gertatzen zen senideekin. Eskolaz gain, kuadrilan ere batera ibili izan gara eta bion artean normalak diren tira-birak izan arren, sekulako konfi- dantza dugu elkarren- gan".

LURDES LETURIA, bikiak itxoiten:
"Enteratzean mutututa geratu nintzen"

Lurdes Leturiak 7 hi- labete darama haurdun eta bi mutil bikiak ditu bere sabel barruan. Berau Lurdesen lehen haurdunaldia da eta bikiak izatea nola hartu

duen galdetu diogu. "Me- dikuairengana ekografia egitera joan nintzenez lehen hilabeteetan esan zidatenean bikiak izango ni- tuela, ezer esan gabe, isil- isilik, mutu geratu nintzen" erantzun digu. Ondoren hilabeteak pasa ahala lasaitu egin da eta berak dioen moduan: "orain po- zik nago".

Mirenek, normala de- nez, haur bakarra izatea espero zuen eta orain biki- ak izan behar dituzenez plan berriak egin beharra izan du: "hasieratik pentsatu genuen norbait hartu be- harko genuela laguntzeko. Gainera, lagunak baditut haurrekin eta esaten dute bakar batek nahiko lan

ematen duela: ba, imaji- na ezazu birekin".

Lurdesen senarrak familian baditu lehengu- sina batzuk bikiak direnak eta beste kasu askoren moduan hemen heren- tziak izan du bere ga- rrantzia. 7 hilabetez haurdun izan arren Lur- des lanean ari da irakas- le, berak esan digunez "goizetan ondo molda- tzen naiz, baina arra- tsalde partean nekatuta egoten naiz. Etxera joan eta etzan egiten naiz, baina espero dut Ga- bonetarako baja hartze- a; medikuek esan dida- tenez, bikiak 9 hilabeteak baino lehenago jaiotzen baitira".



NEREA DOMINGUEZ eta ANTONIA MARTIN bikiak eduki berriak

"Gure umetxoekin oso pozik gaude"

Gustuei dagokienez, bakoitzak bere gustuak ditu, baina anekdotarik ere izan dute. Duela urtebete Olatz oporretan Benidormen izan zen eta Ane, aldiz, Almuñecarren. Oporretatik etortzerakoan, esan digutenez, bata besteari opari berdina egin zioten: pultsera eta kartera.

Ikasketak egiterakoan, Ane Mirenek Lanbide Hezkuntza aukeratu du eta Olatzek Institutura jo du. Hor ere bitxikeriarik izan dute, Anek dioskunez: *"kalean pasiatzen nindoan lasai-lasai eta askotan etortzen zitzaizkidan latineko apunteak eskatuz"*.

Jaione eta Miren Etxarrik beren familian ez dute aurretik bikirik. Txikitatik eskolan eta kuadrilari batera ibili dira eta horrek beren harremanak estutu egin ditu: *"erropan, musikan, zinean, etab.etan... gustu berdinak ditugu. Gure amak esaten duenez, bi ur tanta bezalakoak gara eta, gainera, familia artean eztabaidak ditugunean beti bata bestearen defentsan irtetzen gara"*.

Aurrekoek bezala, hauek ere badituzte anekdota eta pasadizu barregarriak: *"gure kuadrilako bat Arrasateko mutil batekin dabil eta bera ere bikia da. Behin bi anai bikiak Arrasateetik Bergarara etorri ziren eta gu biokin elkartu ziren. Lau-*

Nerea Dominguez eta Antonia Martinek duela hilabete inguru bikiak izan dituzte eta pozik agertu dira seme berriekin. Biek dituzte familian bikiak, batez ere Antoniak, ahizpa bikiak baititu eta hori gutxi bada, senitartean beste hiru bikote ditu, bikiak. Nerearen semeek Mikel eta Andoni dute izena eta bere amak esan digunez oso formalak dira *"nahiz eta Mikelek genio txarragoa izan"*.

Nereak bere beharrezko biki jaio berriak hazteko laguntza bere ondoan bizi den koinatak ematen dio *"bestela oso zaila da biak atenditzea"*. Nereak badu hiru urteko



Nerea Dominguez Mikel eta Andonirekin. Beheko argazkian, berriz, Antonia Martin Asier eta Andonirekin.

beste seme bat eta berak esan digunez ondo hartu du bi anai berrien etorrera *"baina orain nahiko arduratuta dago, bere tiak alde egiten badu ea nork lagunduko dion bere amari galdetzen baitu"* esan digu Ne-

reak.

Antonia ere oso pozik dago bere seme Asier eta Andonirekin *"ez nuen espero bikiak izatea, baina esan zidatenean trankil hartu nuen berria. Gainera lana ematen duten arren, oso ondo portatzen dira eta guretzat sekulako poza izan da bikiak izatea"*.

Antoniaren etxera joan ginenean bere ama, Antoniarena, bikiei jaten ematen zebilen *"eskerrak nire familiakoei, bestela oso zaila izango litzateke biak ondo zaintzea"* esan digu irrifartsu Antonia Martinek, Asier eta Andoniren amak.



rok batera "Popis"era sartu ginenean bango jendearen barreak entzute-

koak izan ziren, baina tira, obituta gaude...".

Honaino herriko biki

batzuekin izandako solasaldia. Asko kanpoan geratu dira. Hurrengoan...

MUJIKA

Burdinaki denda

Bidekurutzeta 8

☎ 76 28 67

BERGARA



Tfnoa: 76 38 57

Irala 1



Appéniz

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.


Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta, 5
Tfnoa: 76 20 34



Zer iritzi duzu Lopez Arriortuari buruz?



Mitxel Garcia
27 urte, langilea

Teoria bitxi samarrak ditu. Arazoak konpontzen dituela entzun da, baina oraindik gauza haundirik ez du demostratu.




Inmaculada Hermosilla
27 urte, langilea

Traba ugari jarri dizkioten arren, lana ondo egiten ari dela uste dut eta lortu nahi duena konsegitzea merezi du.



Lucia Perez
24 urte, langilea

Idea politak dituela uste dut. Automobilaren mundua erreformatu nahi du, baina aurkako asko ditu.



Iñigo Juaristi
34 urte, langilea

Berak lortu duen arrakasta lortu dutenak gutxi dira Euskadin. Planteamendu bitxi eta berriak ditu. Onerako badira, ondo.

TXISTU MOTOR

KOTXE BERRIZKETAK
SKODA ZERBITZU BERRIA



Volkswagen taldea

Aribar Poligonoa. San Juan auzoa
☎ 76 09 31 BERGARA

ERLOJU DENDA

AINHUA

BITXI DENDA

- ZERBITZU TEKNIKOAK • ERLOJU ETA BITXI TAILERRA •
- PILA ALDAKETA • KORREA ETA PASADORE ALDAKETA •
- URRE ETA ZILARREZ TXAPATZEA •

Boni Laskurain, 2 (sarrera Alkabetatik) BERGARA ☎ 76 47 40



E.H.U?

Gutariko gehienok betidanik ikasketak euskaraz egin ditugunez, eta karrera euskaraz egiteko aukera izanda, nola errefuxatu?

Gaur egungo gizartean, pribilejio gisa ikusten du jende askok karrera bere betidaniko hizkuntzan, euskaraz, egitea, non eta Euskal Herrian. Euskaraz karrera bat egiteak arazo bat baino gehiago ekar dezake, orainarte ikusi dudanez behintzat. Alde batetik irakasle falta eta ondorioz klaseak gaztelaniar taldeekin ematea, bestetik euskal irakasle desedituen arazoa, arazo luze eta amaigabea azken hau, ohizko irakasleekin egindako azterketen balio gabetasuna, e.a.

Orain dela egun batzuk kazetaritza fakultateko dekanok ordeari entzun eta gero, kurtso osoa irakasle gabe egon eta kurtso amaieran asignatura horrekin zer ikusirik ez duen lan bat aurkeztea nahiago dutela irakasle kaleratu bati kontratua egin baino jakin nuen, horrela ulertu behintzat.

Irakasleak falta diren aitzakiak euskarazko hainbat klase eliminatori dituen denboran zehar, klaseen ordutegiak aldatu dizkigute inolako kontsultarik egin gabe, euskal saila errausteko asmotan dabiltzala pentsatzera naramana guzti honek, beraz, zer egin honen aurrean? benetan "Euskal Herriko" unibertsitatea?

Aitziber Azkondo



Kanpoan euskaldundu

Ikasle asko irteten dira Euskal Herritik kanpora, Estatu barnera gehienetan, unibertsitate mailako ikasketak egitera.

Eta bi jarrera ikusten ditugu beraien artean: bata, ikasketak gazteleraz egiten hasi eta piskanaka-piskanaka erdal giroan murgiltzen direnena, beraien joera profesionala eta pertsonala gazteleraz zentratuz.

Bestea, euskaraz mintzaten sumatzen duten bezain azkar, elkargana biltzen direnena, eta ikasketak gazteleraz egin arren, euskal giroa bizi dutenena, beraien artean euskal kulturako hainbat ekitaldi antolatuz, beraiantzat eta besteentzat.

Eta ez dira gutxi ordurarte euskaldun bezala bizi arren, giroa hori zelako, euren aberria zein den kuestionatu ez dutenak. Kanpora joatean, bizipen berri batzuen aurrean, ustegabeen eta bila ibili gabe bapatean ohartzeko dira beren sustraiez eta aberriez.

Kanpora joatea da askorentzat beraien buruarekin aurkitzeko okasioa. Ez da txarra beraz, ohizko girotik irtetea, profesionalki ikasi daitekeenaz gain, posible egiten baitu perspektiban gauzak ikustea eta bakoitza bere nortasunaz jabetzea.

Rufina Olasagasti

LANBIDE HEZKUNTZA ESKOLA

IKASTAROAK

- **D base IV DATUTEGIA**
- **Mekanikoentzat ELEKTRIZITATEA**

HASIERA: Azaroak 22

IRAUPENA: 40 ordu

MATRIKULAZIOAK eta INFORMAZIO GEHIAGO: ☎ 76 24 91 / FAXA: 76 38 41

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

ARIZNOA

Taberna

- Gosariak •
- Pintxo bero eta hotzak •

Irala 1, BERGARA ☎ 76 52 30

Pepelu

Ileapaindegia

Zurradero 2, Behea.
Tfnoa: 76 43 07



□ Zuzendaritza Batzorde berria

Joan den ostegunean Jubilatuetako Zuzendaritza Batzordea berrizteko hauteskundeak egin ziren. Eraitzen arabera, argazkian agertzen direnek osatuko dute Batzordea datozen 2 urteetan: Joaquin Zeziaga, Gerardo Mondragon, Justina Larrañaga, Maria Angeles Berastegi, Eduardo Etxabe, Ramiro Lopez, Luis Alberdi, Bixente Uribealgo, Carlos Elorza eta Honorio Sampietro. Azaroaren 16an egingo da batzordekideen erreleboa.



□ Zumelagak 50 urte

Zumelaga Jatetxeak bere 50. urteurrena ospatu zuen astelehenean. Sortu zenetik bi lokaletan izan da: oraingo lru-bide tabernaren lokalean hasieran eta oraingo lokalean (San Antonio, 5) orain 21 urtetik hona. Ordutik prestijio handia lortu du jatetxeak eta astelehenean *luncha* eman zuten **Arreseigortarrek** beren urrezko eztaiak ospatzeko. Zorionak!!

HARATEGIA

ANTIA

URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi, Tfnoa: 76 15 09

MAKAILO

Makailau **ETXEA**
kazuetak gertatzen ditugu

Ibargarai 15

TXLIKUN

BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, ☎ 76 51 62
BERGARA




□ **Euskara taldeak aztergai**

Joan den astebukaeran, Arrasate Euskaldun Dezagun (AED) taldeak bere 10. urtemuga ospatzeko antolatutako ekitaldien barne, euskara elkarteei buruzko ihardunaldiak burutu ziren Arrasaten bertan. Ipar zein Hego Euskal Herri osotik etorritako 160 lagun bildu ziren larunbat eta igandez eta talde bakoitzaren ereduak (JARDUN tarteetan) eta aurrerako asmoak aztertu ziren topaketa hauetan. Bergarako 10 lagun ere han izan ziren (argazkian bat falta da) eta ziur gaude ondorio interesgarriak aterako zituztela han entzun eta ikasitakoetatik.

□ **II. Karlistada**

Asteazkenean Kultur Etxean izan zen **Gotzon Iparragirre**, Udalak kaleratutako **Justo Garate** bekaren bigarren edizioa eskuratu duen ondarrutar gaztea. Joan den astean aurreratzen genuen bezala, Gotzonek 11 hilabete izango ditu bere lana amaitzeko. 935.000 pta.ren truke, Deba Erdialde eta Garaian II. Karlistada aztertuko du. Gotzon Iparragirre Historian lizentziatua da eta 26 urte ditu. Berehala buru-belarri hasi beharko du lanean...




Zertan dihardute ba?

ELI MENDIZABAL



Enpresaritzita ikasketak burutu dituen 28 urteko bergarar hau, Jaurlearitzarengandik jaso zuen bekarekin jarraituz, Parisera joango da 6 hilabetez Gasteizeko enpresa batendako lan egiteko asmoz.

MENDIA BIZIRIK



Hainbat kolektiboren laguntzaz, talde ekologista bergarar honek Eusko Jaurlearitzak argitaratu berri duen "Medio ambiente y montaña en el País Vasco" liburua landu du.

MINER
ardak

Biltegi telefonoa: 76 41 41

Ardo onak, jakina

**A
R
R
A
N
O**



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

Umore giroan

Danak kabitzen dira?

Ama bat gaixorik zeguan oian. Estutu zan gaiñera, 40ko kalenturia zeukala konturau zanian. Prisaka bialdu zeban bere alabatxua Artadi medikuagana. Alako gizon aundi-xari erderaz berba eñ biar jakue-lakuan, medikuaren aurrera eldu zanian, umetxuak, estu eta larri:

- Señor médico, ¡la madre está con 40 en la cama!

Artadik:

- ¡Con 40 en la cama!, ta danak kabitzen dira?

Lengo patroia il

Itxura danez, San Hubertoren aurretik, San Eustakio izan zen eiztari edo kazarixen patroia. Felix Txatua, Plaentxian, oso kazari aundixa zan. Egun baten esatese:

- Zu Felix, badakizu zein den kazarixen patroia?

- Jakingo etxuat pa...! San Eustakio!

- Bai zera, oiñ San Huberto da.

- Ah! orduan lengua il eñ dok.

Pedro Zelaia

ORAIN DELA 20-25 URTEKO NOTIZIAK



Matxiategi auzoa.

GAUR EMANGO DIRA MATXIATEGIKO ETXEBIZITZETAKO GILTZAK


Bedeinkatu ondoren, gaur eman- go dira Matxiategiko etxebizitzetako giltzak. Donostiako Aurrezki Kutxa Municipalaren dirulaguntza haundi- ari esker egin ahal izan dira 168 etxebizitzok, "Cooperativa de vivien- das San Martin de Agirre" izena izan- go dutenak.

Gaur eguerdiko hamabi t'er- dietan izango da inaugurazioa, be-

deinkapena eta jabeei giltzak ema- tea. Oraingoan ere, ekintza bikain honen bidez, Donostiako Aurrezki Kutxa Municipalak argi erakutsi du Gipuzkoar guztiei laguntzeko dagoela.

La Voz. Bikuña. 1973-X-28.

**Asier Madinabeitia, Ane Goenaga eta Josune Iñarrak
hemerotekatik bildutako notiziak**



POL - POL TABERNA

Tfnoa: 76 07 78

DEPORTIVO TABERNA

Tfnoa: 76 01 51

OILAGORRA

Taberna

Barrenkale 21, BERGARA

AGIRREBEÑA

Oinetakoak
Erropa denda
Lenzeria

Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29



Zumelaga


JATETXEA

ADRIAN ARRESE-IGOR

San Antonio 5

BERGARA

☎ 76 20 21



ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



GALDE DEBALDE

ALICIA ETXABE

Begarako epaitegiaren teiltuan dagoen irudiak justizia errepresentatzen du eta irudiak eskuetan dituen sinboloak ezpata eta zuzentasunaren balantza dira.

ALICIA ETXABEK erantzun zuzena jarri du eta bera dugu aste honetako irabazlea. Berarentzat, **ARGAZKIk** emandako saria.

ZORIONAK !!

Besteok segi asmatzen! Animo!!



HERRAN ETXEA

Sukaldeko altzariak

Matxiategi, 4. 76 37 53


**Elektragailuak, TB,
bideoak, HIFI
aparailuak.**

Matxiategi, 3. 76 12 22



JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



ALICIA ETXABEK jaso du aste honetan ARGAZKIK emandako saria.

HERRAN ETXEA

Sukaldeko altzariak
Matxiategi, 4. ☎ 76 37 53



Elektragailuak, TB, bideoak, HIFI aparailuak.
Matxiategi, 3. ☎ 76 12 22

Hurrengo Galde Debaldeko saria
HERRAN ETXEAk emango du.

Galde Debalde

Aste honetako galdera:

Azken bolada honetan azpiegiturak direla eta ez direla nahiko entzuten dihardugu Bilboko superportua, metrua, abiadura haundiko trenua, autobia, autopista... Halako lan haundi guztiekin gertatzen den moduan, batzu alde eta beste batzu kontra azaltzea normala da eta bizirik dagoen gizartearen seinaleztat hartu behar da jendearen interes hori.

Maltzaga-Urbina tartean egin nahi den autopista dela eta hasiak gara gure inguruan horren aldekoen eta kontrakoen azalpenak entzuten; aldeko arrazoiak batetik, alternatibak bestetik. Hasi besterik ez da egin gai honen inguruko azterketa eta denbora gutxian bai alde daudenek eta bai kontra daudenek ere, beren lantaldeak sortu dituzte. Aldekoek Eibarren egin zuten aurkezpena eta kontra daudenek, oster, Bergaran.

Zela dute izena Maltzaga-Urbina autopistaren alde eta kontra sortu berri diren bi taldeek?



izena

abizena

telefonoa

OHARRA: Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke

Bergararrak ondo Munduko Kopan

Txilo Aranburuk egin zuen denborarik onena

Joan den igandean Donostian korritu zen Maratoiko Munduko Kopan bergarar talde polita izan genuen, gehienak JARDUNeko kamisetarekin.



Txeles Santos bergararrak 3 ordu eta 38 minututan bete zituen 42 kilometroak.

25 ziren izena emandakoak, 18k amaitu zuten, 4 erretiratu egin ziren eta 3k ez zuten korritu. "Txilo" Aranburu izan zen onena, nahiz eta azkenengo hogeik kilometroak hanka biak odoletan zituela egin. Xabier Azkarate antzuolarrak denbora oso ona egin zuen (2,26',30"). Maratoia lehenengo aldiz korritzen zuten artean aipagarria Jabi Morenoren karrera bikaina, eta baita Aitor Eraña eta Anton Barrutiarena ere. Bixente Pagaldaik Donostiako bere 16. maratoia amaitu zuen, eta denbora onez, azkenengo kilometrotan "tiroa egin" zuen arren.

Maratoian askotan gertatzen den bezala, lehenengo parte oso azkar baten ondoren izan ziren batzuk tiroa egin zutenak: Txilo, Bixente, Garzia, Manolo..., eta pintxozak: Anselmo, Juan Martin


eta abar. Baina denak pozik, amaituta gero. Jon Aranzabal, Manu Diaz eta Imanol Bolinagak nahia-go izan zuten karrera beste baterako utzi, garaiz erretiratzen jakitea ere arte bat da eta.

Eta 14an Behobia-Donostia. JARDUN elkarteak autobusa antolatu du. 8.30etan irtengo da estaziñotik eta 20.00etan izango da itzulera. Proba ostean bazkaria izango da Petritegi sagardotegian. Prezioa, 2.800 pzta, eta izena emateko azken eguna, asteazkena, hilak 10.

J.M. Elexpuru

Sailkapen ez ofiziala

• Basilio Aranburu.	2 40' 57"
• Jabi Moreno.	2 51' 48"
• Bixente Pagaldai.	2 59' 12"
• Ramon Maria Loiti.	2 59' 40"
• Aitor Eraña.	3 01' 43"
• Anton Barrutia.	3 03' 23"
• Anselmo Gomez.	3 04' 53"
• Karlos Lizarralde.	3 08' 50"
• Juan Balentziaga.	3 09' 27"
• Juan Martin Elexpuru.	3 10' 35"
• Gorka Igartua.	3 17' 08"
• Imanol Garzia.	3 26' 55"
• Luis Mari Alberdi.	3 28' 05"
• Edu Jauregi.	3 29' 47"
• Juan Luis Aiastui.	3 37' 53"
• Txiles Santos.	3 38' 12"
• Mikel Etxaniz.	3 51' 10"
• Manolo Reig.	3 59' 05"



GIARTZU

GIMNASIOA

Boni Laskurain, 3 behea
 ☎ 76 35 71
 BERGARA

- AEROBIKA
- MANTENIMENDUA
- MUSKULAZIOA
- KARATEA
- NIM-JITSUA

ORDUTEGIA:
 7:30-13:00 / 14:30-22:00



San Martzial. 1952.

J endea serio agertzen da San Martzialako lehenagoko argazki askotan. Hau ere ez da atzo goizekoa baina orain aterako genituzkeen argazkien itxura haundiagoa du lehenagoko haiena baino. San Martzialen Lonbideneko bazkariak zerbitzatzen ziren garai hartan.

Hauek dira bertan agrtzen diren emakumezkoak: Maria Angeles Alkorta, Maritxu Iriarte, Isabel Alegria, Milagros Arregi eta Begoña Ugarte. **Gizonezkoak,** berriz: Bernardino Agirre, Jose Beitia, Jose Arregi eta Iñaki Aranburu.



Beti-Ondo, Artekaleko futbol taldea. 1935.

K ikio baloiari lehen ostikadak ematen hasi zenekoa da argazki hau. Mizpildiko futbol zelaian aterata dago. Tamalez, puskatxoa falta zaio eta ezin dira Artekaleko ekipoa osatzen zuten jokalaririk guztiak ikusi. **Atzean daudenak:** Victorio Bilbao, Luis Irizar, Ramon Sasiain eta Victoriano Larrañaga. **Aurrekoak:** Liborio Mujika, Jesus Larrañaga, Julio Larrañaga eta Kikio.

Estepan Plazaola
Argazkiak: Mari Carmen Heras eta Jesus Larrañaga



Ziripot

Bidekurutzeta 11, Tfnoa: 76 11 41

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate, 1 ☎ 76 12 31

HEMEN
edertze aretoa



Matxiategi, 36 behea ☎ 76 58 88

ETXEBIZITZA

Garajea hartuko nuke alokairuan Tokiederren. ☎ 76 52 45.

Etxebizitza salgai Iparragirre kalean. ☎ 76 40 82.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 79 83 50.

Etxea alokatzen da Osintxun. ☎ 76 49 60.

Pisua salgai San Lorentzon. ☎ 76 27 35.

Pertsona bat behar dugu Deustun pisua osatzeko ☎ 76 49 69.

Pisu amueblatua salgai Artekale 16an. ☎ 76 12 81.

Garajea salgai Iparragirre kalean. ☎ 76 28 52.

Pisua alokatuko nuke. Bulegoak jartzeko egokia. Merkea. ☎ 76 16 89.

Bergaran pisua betetzeko pertsona bat behar da. ☎ 76 55 88 / 76 56 67 (Salva).

Pisua salgai Artzamendi kaleko 13. zenbakian. ☎ 76 32 53.

DENETARIK

Donostian pisua osatzeko lagun bat behar da. ☎ 42 59 15 (John).

Estufa japoniarra salgai. Egoera onean. Oso merke. ☎ 76 31 23.

Nintendo bat salgai (S. Mario Bros) ☎ 76 39 34.

Karabana bat salgai. Ia berria. ☎ 77 04 98.

Seat 1.500 SS-94465 ko-txea salgai. Egoera onean. ☎ 76 42 81.

Donostian pisua osatzeko neska bat behar da. ☎ 76 61 38 (Nerea).

Paseorako Peugeot bizikleta salgai. ☎ 76 48 68.

Ume kotxe bat salgai. ☎ 76 02 00.

Renault 21 TXE bat salgai. 1988koa. Egoera onean. ☎ 76 38 68.

Uberan taberna salgai. Erreztasun haundiak. ☎ 76 25 99.

Renault 18 diesel bat salgai. Familiarra. ☎ 76 33 85 (iluntzean).

Korredore Look bizikleta salgai. Egoera onean. ☎ 76 64 62.

Game boy bat salgai. 10 joku. 10.000 pzta. ☎ 76 51 98 (iluntzean).

LANA

Karabana bat salgai. Ia berria. ☎ 77 04 98.

Esperientziadun emakume batek gutxitu sikiko, elbarri edota pertsona zaharrak zainduko lituzke. ☎ 76 53 25 / 21 34 31.

OHO, REM eta LZ klaseak. ☎ 76 24 31.

Emakume batek etxeak garbituko lituzke ordu batzuetan. ☎ 76 47 67.

Latin, Euskara eta Franses klaseak. ☎ 76 02 99.

Ilea eta bizarra moztera joango nintzateke etxez etxe. ☎ 76 41 98.

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 23 67 / 76 22 90.

Etxeak garbitu edota pertsonak zainduko nituzke. ☎ 76 50 63 (Marijo).

OHO eta ingeles (maila guztiak) klaseak ematen ditut. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxe lanak egingo lituzke. ☎ 76 36 06 (Marisol).

Geriatría ikastaro bat egin dut eta pertsona zaharrak zainduko nituzke. ☎ 76 24 62 (Ana).

Ingeleseko klaseak ematen ditut. ☎ 76 26 63.

Ingeleseko klaseak. ☎ 76 31 36.

Ordenadorez lanak pasatuko nituzke. ☎ 76 05 43.

Arratsalde ordu batzuk lan egingo nuke. ☎ 76 21 39 (Rosi).

Ingeles klaseak emango nituzke. ☎ 76 46 54.

OHO eta LH (Administratza) klaseak. ☎ 76 50 67.

Hildakoak

Dolores Setien Casatorre
urriak 31, 95 urte

Jaiotakoak

Olaia Cusi Idigoras
urriak 27
Iulen Molpeceres Garcia
urriak 27

AUTOPULLMANS ARABA

Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara

ANGIOZAR ☎ 76 55 70



drogak al dira arazoa?

JARDUNALDIAK

AZAROAK 9, 10, 11, 16, 17, 18

AZAROAK 9 astelehena

"DROGAK AL DIRA
ARAZOA?"

"Denok daukagu
zer esana"

JRDUNALDIEN
AURKEZPENA

19.00etan Kultur Etxean

AZAROAK 10 asteartea

"NORK BERE BURUA
SENDATU,
MEDIKAMENTUEN
ARRISKURIK GABE"

ENEKO LANDABURU
MEDIKU HIJENISTAREN
HITZALDIA

19.00etan Kultur Etxean

AZAROAK 11 asteazkena

"GAUR EGUN
BERGARAN BIZI
IZATEA"

BERGARAKO ADIN ETA
TALDE EZBERDINETAKO
PERTSONEN ARTEKO
MAHAINGURUA

19.00etan Kultur Etxean

AZAROAK 16 asteartea

"EL PRECIO DE LA
AMBICION"

BIDEO
EMANALDIA

19.00etan Kultur Etxean

AZAROAK 17 asteazkena

"EZ ZAITEZ PENETAN
ITO, KANPORA
ITZAZU"

ANTONIO PALOMAR
MEDIKUAREN HITZALDIA
ETA OIHULARI CLOWN
TALDEAREN PARODIA

19.00etan Kultur Etxean

AZAROAK 18 osteguna

JARDUNALDIEN
BALORAZIOA ETA
ONDORIOAK. ONDOREN
MAIALEN LUJANBIO ETA
JOSE M. IRAZU
BERTSOLARIEN SAIOA.

19.00etan Kultur Etxean

HANKAPALU IKASTAROA

KUKUMA HANKAPALU TALDEAREN ESKUTIK.

EGUNAK: AZAROAK 12, 13, 18, 19, 20.

IZEN EMATEA: ASTELEHENETIK OSTIRALERA 18.00etatik

21.00etara ZUBIETAKO ESKOLAN.

BERGARAKO UDALA
DROGOMENPEKOTASUNEN
PREBENTZIORAKO UDAL ZERBITZUA